

ANDER DEUNA IKASTOLA
BATXILERGOA 1.A

Orain, nora?



Itxaso Araque Barriusoren "Damutzen ez direnak" liburuak buruko gurpilak martxan jarri zizkidan, ohartaraziz bizitza zenbait norabidetako bide bat dela, eta gu bolantea erne hartu behar dugun kotxe galdu baten gidariak garela. Oro har, istorioan zehar pertsonaia ezberdinek hamaika erabaki hartu behar izan dituzte, euren etorkizuna itsu-itsuan bideratuz. Hori baita bizitza, ondorioak jakin gabe, etengabe aurrera egin behar den lasterketa.

Onartu beharra dago erabakiek beldurtu egiten gaituztela. Izan ere, *erabakia* hitza eginez goazen bidea aldatzeko ahalmena duen hitz soila da: paraxutik gabeko erorketa libre batek baino beldur handiagoa ematen duen hitza. Baina gure birikak oxigenatzen dituen airea bezain beharrezkoa dena ere bada. Eta gauza horiek gizakia bere urratsetan atzera itzultzera bultzatzen dute. Aldiz, erabakiek bizitzako hainbat momentutara garamatzate, kamera baten memoria amaigabea bailitzan. Eta argazki bakoitzak harrapatu egiten ditu erabaki horien ondorioz bizitako uneak. Horregatik erabaki nuen kamera bat sortzea: argazki bat, erabaki baten bizi-pena.

Agian erabaki guztiek ez gaituzte nahi dugun bidetik eramango, izan ere, huts egiteko prest gauden izakiak gara, inori gustatu ez arren. Baina izango dira beste erabaki asko ere, irri egitean sortzen diren zimur horiei hasiera emango dietenak.

Erabaki baten uzta izan ginen egun batean. Helburu berera iristeko bideak elkartu zituzten bi ezezagunen uzta. Eta gure lehen negarra baino hilabete batzuk geroago, gure ekintzen epaile izateko eta ondorioei eusteko berezko gaitasuna garatu genuen. Pentsa ezazu unetxo batez, zure lehen erabakia hartzeko gai izan ez bazina, zure bizitzako zein momentutan geratuko zinateke katramilatuta? Konturatu ez bazara ere, erabakiak hartzen ditugu egunero, eta hauek pausoak ematen laguntzen gaituzte. Ordea, ez genuke erabakirik hartu behar emaitzei aurre egin behar ez dieten lagunen aholkuetan oinarrituta. Zu zeu zara zure auto *galduaren* gidaria, zuk aukeratzen duzu errepidea. Bada, ez zaio beldurrik izan behar hasteari, ezta oraindik sortu ez den zerbaiti ere. Istorio ederrenak orri zuri batetik abiatu ziren eta.

“Ez naiz nire inguruabarren emaitza, nire erabakien ondorio baizik” - Steven Covey -

- Neysa Badiola Arroyuelo -